E/2020IORO0064

**Jorge Segurado Iriondok,** Urnietako Udaleko (Gipuzkoa) Alkateak, berari dagokion ahalmena baliatuz eman du ondorengo

## DEKRETUA

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19 koronabirusak (SARS-CoV-2) eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera nazioarteko pandemia bihurtu zuen. Gertaeren bilakaeren azkartasunak egoera horri aurre egiteko berehalako neurri eraginkorrak hartzea eskatzen du. Gertatzen diren ez-ohiko inguruabarrak, zalantzarik gabe, aurrekaririk gabeko osasun-krisia dira, eta oso handia, bai eragindako herritarren kopuru handiagatik, bai haien eskubideetarako aparteko arriskuagatik.

Segurtasuneko sailburuaren 2020ko abuztuaren 14ko Aginduaren bidez, Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi, formalki aktibatu zen, COVID-19ren (SARS-CoV-2) hedapenaren ondoriozko osasun-alertak sortutako egoeraren aurrean.

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzen duenak, birusaren hedapenari aurre egiteko hainbat motatako neurriak jasotzen ditu.

Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren bidez, prebentzio-neurri espezifikoak zehaztu dira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

Urnietako udalerriko pandemiaren bilakaeraren ondorioz, beharrezkoa da Alkatetzaren 2020ko urriaren 19ko 2020/981 Dekretuaren bidez onartutako prebentzio-neurriak astebetez luzatzea. Neurri hauek osasun-agintariek hartutakoen osagarri dira, 2020ko urriaren 23ko 2020/1000 Alkatetza Dekretuaren bidez azaroaren 1erarte luzatu ziren eta 2020ko urriaren 26ko 2020/1014 Alkatetza Dekretuaren bidez aldatu egin ziren, eta urriaren 30eko 2020/1049 Alkatetza Dekretuaren bidez 2020ko azaroaren 8rarte luzatu ziren aldaketa batzuekin.

**Jorge Segurado Iriondo**, Alcalde del Ayuntamiento de Urnieta (Gipuzkoa), de conformidad con las competencias que tiene atribuidas emite el siguiente:

## DECRETO

La Organización Mundial de la Salud elevó el pasado 11 de marzo de 2020 la situación de emergencia de salud pública ocasionada por el coronavirus COVID-19 (SARS-CoV-2) a pandemia internacional. La rapidez en la evolución de los hechos requiere la adopción de medidas inmediatas y eficaces para hacer frente a esta coyuntura. Las circunstancias extraordinarias que concurren constituyen, sin duda, una crisis sanitaria sin precedentes y de enorme magnitud tanto por el muy elevado número de ciudadanos afectados como por el extraordinario riesgo para sus derechos.

Mediante Orden de 14 de agosto de 2020, de la Consejera de Seguridad, se procedió a la activación formal del Plan de Protección Civil de Euskadi, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi, ante la situación generada por la alerta sanitaria derivada de la propagación del COVID-19 (SARS-CoV-2).

Por Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, por el que se declara el estado de alarma para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, se contemplan medidas de diversa naturaleza para hacer frente a la expansión del virus.

Mediante Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari, se han determinado medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2.

La evolución de la pandemia en el municipio de Urnieta hace necesario prorrogar por una semana las medidas de carácter preventivo, complementarias a las adoptadas por las autoridades sanitarias, aprobadas mediante Decreto de Alcaldía 2020/981, de 19 de octubre de 2020, prorrogadas hasta el 1 de noviembre mediante Decreto de Alcaldía 2020/1000, de 23 de octubre de 2020, modificadas mediante Decreto de Alcaldía 2020/1014 de 26 de octubre de 2020 y prorrogadas hasta el 8 de noviembre de 2020 con ciertas modificaciones mediante el Decre-

ESKUd23c4265-8525-4b6c-a017-1e1b26414123



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D · 943 008 000 · 943 008 037 · urnietakoudala@urnieta.eus · urnieta.eus

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateari dagokio, besteak beste, *a) udal-gobernua eta -administrazioa zuzentzea; h) langile guztien goi-buruzagitza betetzea; eta m) hondamendi edo ezbehar publiko edo arrisku larriren bat gertatuz gero, zuzenean eta bere erantzukizunpean beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, berehala horren berri Udalbatzari emanez*.

Eskumen horien arabera, honako hau

**XEDATU DUT**

**Lehenengoa.- 2020ko azaroaren 15erarte (egun hau barne) luzatzea** 2020ko urriaren 19ko 2020/981 Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako Covid-19aren aurkako prebentzio-neurriak urriaren 30eko 2020/1049 Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako luzapenaren baldintza berdinetan.

**BIGARRENA.-** Berehala ebazpen honen berri Udalbatzari ematea, webgunean eta iragarki taulan argitaratzea, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailari eta eragindako enpresei jakinaraztea, eta udal departamentu eta sozietateei horren berri ematea.

Hala agindu eta sinatzen dut, Alkatea.

to de Alcaldía 2020/1049, de 30 de octubre.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, corresponde al Alcalde, entre otras, la función de *a) dirigir el gobierno y la administración municipal; h) desempeñar la jefatura superior de todo el personal; y m) adoptar personalmente, y bajo su responsabilidad, en caso de catástrofe o de infortunios públicos o grave riesgo de los mismos, las medidas necesarias y adecuadas dando cuenta inmediata al Pleno.*

En virtud de estas competencias,

**DISPONGO**

**PRIMERO.- Prorrogar hasta el 15 de noviembre de 2020 (inclusive)** las medidas preventivas frente al Covid-19 aprobadas mediante Decreto de Alcaldía 2020/981, de 19 de octubre de 2020, en las mismas condiciones de la prórroga acordada mediante el Decreto de Alcaldía 2020/1049, de 30 de octubre.

**SEGUNDO.-** Dar cuenta inmediata de esta resolución al Pleno, publicarla en la página web y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, notificarla al departamento de salud del Gobierno Vasco y a las empresas afectadas y dar cuenta de las mismas a los departamentos y sociedades municipales.

Es lo que mando y firmo, el Alcalde.

Jorge Segurado Iriondo

Ebazpen-liburuan sartzeko jasotzen dut, Idazkaria.

Tomo razón para su inclusión en el libro de resoluciones, el Secretario.

Mateo Habibi Astigarraga López



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: ESKUd23c4265-8525-4b6c-a017-1e1b26414123
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210***